**Espedientea: 1HI-006/17-P03 ESKUERNAGA Eskuernagako Hiri-antolamenduko Plan Orokorra.**

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

**ZIURTATZEN DUT** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak uztailaren 12an izandako 3/2017 Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, gehiengo osoz, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**"I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

I- Eskuernagako udalerriko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean azaldutako lurralde-eredua balioestea, honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea; Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legea; eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen 5/1993 Legea. Lotesleak diren gaiei dagokienez, honela balioesten da:

1.- INGURUNE FISIKOA.

1a.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetara egokitzea.

- Aldeko irizpena eman zaio lurzoru urbanizaezinerako proposatutako zonifikatzeari, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 8. kapituluan ezarritako izendapen eta irizpideekin bat baitatoz.

1b.- Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialera egokitzea.

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, Arabako Errioxako LPPera egokitzen baita,

**Expediente: 1HI-006/17-P03 VILLABUENA DE ÁLAVA Plan General de Ordenación Urbana de Villabuena de Álava.**

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO** que en la Sesión 3/2017 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 12 de julio, se adoptó, entre otros, por mayoría absoluta de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

**"I. En materia de Ordenación Territorial:**

I- Valorar el Modelo Territorial planteado por el expediente de "Plan General de Ordenación Urbana del Municipio" de Villabuena de Álava de conformidad con lo establecido en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco, y en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos, cuyo carácter de informe es vinculante:

1.- MEDIO FISICO

1a.- Adecuación a las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Se informa favorablemente la zonificación de SNU propuesta, por adecuarse a las denominaciones y criterios de las Categorías de Ordenación del capítulo 8 de las Directrices de Ordenación Territorial.

1b.- Adecuación al Plan Territorial Parcial de Rioja Alavesa.

- Se informa favorablemente el expediente en relación a su adecuación al PTP de Rioja Alavesa.

1c.- EAEko Erreken eta Ibaien Ertzen Antolamendurako LPSera egokitzea.

- Dokumentazio grafikoan marraztu behar dira Gainazaleko Urak Babestea kategoria duten lurzoru guztiak.

- Ubideek eragina duten eremuen araudi partikularrak LPSeko urruntze-tarteak betetzeko beharra aipatu beharko du.

- Urez bete daitezkeen tarteei dagokienez, espedientea URA-Uraren Euskal Agentziari bidali zaio, horrek bere balioespena egin dezan.

1d.- EAEko Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSera egokitzea.

- Beharrezkotzat jotzen da araudiak Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSeko baldintzak aipatzea nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen bati lotuta dauden etxebizitzetan.

2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

- Ez zaio eragozpenik jartzen espedienteari, azpiegituren eta zerbitzuen sareen arloetan.

3. EREMU LIBREAK ETA EKIPAMENDUAK.

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, espazio libreen arloetan.

- Zuzen identifikatu behar dira dokumentazio grafikoan (P.2.a planoa) lurzoru urbanizaezinean kokatzen diren ekipamendu generikoak.

- Euskal Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari igorri zaio espedientea, bere alorrean balorazioa eman dezan.

4. BIZITOKITARAKO ETA EKONOMIA-JARDUERETARAKO KOKALEKUAK.

4a.- Bizitokien eredua eta kuantifikazioa.

- Proposatzen diren 52 etxebizitza berriak

1c.- Adecuación al PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV.

- Se deberá plasmar en la documentación gráfica todos los suelos categorizados como de Protección de Aguas Superficiales.

- La Normativa particular de los ámbitos afectados por cauces deberán expresar la necesidad de cumplir los retiros del PTS.

- En lo que respecta a inundabilidad, se da traslado del expediente a URA, para su valoración.

1d.- Adecuación al PTS Agroforestal.

- Se considera necesario que la Normativa haga mención a las condiciones del PTS Agroforestal en la implantación de viviendas vinculadas a explotación agropecuaria.

2.- INFRAESTRUCTURAS Y SERVICIOS

- No se pone objeción al expediente en lo relativo a infraestructuras y redes de servicios.

3.- EQUIPAMIENTOS Y ESPACIOS LIBRES

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo a espacios libres.

- Se deberán identificar correctamente los equipamientos genéricos que se sitúan en suelo no urbanizable en la documentación gráfica (plano P.2.a).

- Se remite el expediente a la Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, para su valoración en la materia.

4.- ASENTAMIENTOS RESIDENCIALES Y DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS

4a.- Cuantificación y modelo territorial residencial.

- La capacidad residencial planteada de

etxebizitzen kopuruari buruzko LAGen aldaketan ezarritako irizpideak ezartzean lortzen diren bizitoki-ahalmenarekin bat dator.

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, eraikigarritasunei dagokienez.

- Etxebizitza Sailburuordetzari bidali zaio espedientea, Planak proposatzen dituen babestutako etxebizitzei buruzko balorazioa egiteko.

4b.- Jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruaren antolamendua eta kuantifikazioa.

- Ekonomia jarduerei dagokienez, aldeko irizpena eman zaio udalerrian proposatzen diren eredu eta kuantifikazioari.

II- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. puntua Batzordeari buruzkoa da, eta horrek xedatutakoaren arabera, txosten honetan aipatzen diren baldintzak sartu eta gero, espedienteak behin betiko onespena lortu ahal izango du, Batzorde honen txosten berririk gabe.

**II.- Uraren arloan:**

URA-Uraren Euskal Agentziak 2017ko uztailaren 6an emandako txostenean, honako baldinza hauek ezarri zituen:

A) Kontrako irizpidea ematea honako Hirigintzako Esku-hartze Area hauetan proposatutako aldaketei: “Herrera” (Hegoa) VI.09 eta “Viura” (ekialdea) VI.05. Hala izango da, aurreko atalean aipatutako Azterlan Hidraulikoa aurkeztu arte eta egiaztatu arte eremu horietan proposatutako antolamenduek indarreko araudia betetzen dutela (lehenago adierazi da).
B) Aldeko irizpidea ematea gainontzeko eremuei, honako zehaztapen lotesle hau betetzeko baldintzapean:

52 viviendas encaja en la capacidad residencial resultante de aplicar los criterios de la Modificación de las DOT en materia de cuantificación residencial.

- Se informa favorablemente el expediente en materia de edificabilidades.

- Se remite la valoración del Plan en materia de vivienda protegida al informe de la Viceconsejería de Vivienda, a quien se ha remitido el expediente para su valoración.

4b.- Ordenación y cuantificación del Suelo de Actividades Económicas

- Se informa favorablemente el modelo y la cuantificación de suelo para actividades económicas propuesto para el municipio.

II- A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

**II- En materia de Aguas:**

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 6 de julio de 2017, informa de la siguiente forma:

A) Desfavorablemente las modificaciones propuestas en los ámbitos AIU “Herrera” (Sur) VI.09 y “Viura” (este) VI.05, mientras no se presente el Estudio Hidráulico citado en el apartado anterior y se compruebe que las ordenaciones propuestas en dichos ámbitos cumplen la normativa en vigor, también señalada anteriormente.
B) Favorablemente, el resto de los ámbitos, de modo condicionado al cumplimiento de la siguiente determinación que cuenta con carácter vinculante:

- Behin betiko onespena eman aurretik, Arabako Errioxako Uren Partzuergoaren adostasun txostena aurkeztu beharko da; horren bidez, egiaztatuko da dagoen azpiegitura nahikoa dela eskari berriak eta etorkizuneko garapenek ekarritako karga berriak jasateko. Nahikoa izan ezean, jaso beharko da zein konponbide aurreikusten diren horrelako arazoak konpontzeko.

Jabari publiko hidraulikoaren zaintza-eremuan edo zortasun-eremuan edo jabari horretan egiten diren obra guztiek Uraren Euskal Agentzian aurkeztu beharreko arroko organismoaren aurretiazko baimen administratiboa izan beharko dute.

**IV.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari honako hauek egindako txostenak bidaltzea: Etxebizitza Sailburuordetza (I. eranskina); Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (II. eranskina); Kultura Ondarearen Zuzendaritza (III. eranskina); URA- Uraren Euskal Agentzia (IV. eranskina); Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (V. eranskina); Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza (VI. eranskina); eta, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusia (VII. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen. Vitoria-Gasteizen, 2017ko uztailaren 12an.

- Con anterioridad a la aprobación definitiva se deberá presentar el informe de conformidad del Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa que certifique que la infraestructura existente es suficiente para soportar las nuevas demandas y las nuevas cargas generadas por los futuros desarrollos y, si no fueran suficientes, las previsiones para dar solución a posibles problemas en este sentido.

Toda obra que se realice en la zona de policía o de servidumbre del dominio público hidráulico o en dicho dominio, deberá obtener la previa autorización administrativa del Organismo de cuenca a tramitar en esta Agencia Vasca del Agua.

**III.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo I); por la Dirección de Agricultura y Ganadería (Anexo II); por la Dirección de Patrimonio Cultural (Anexo III); por URA.-Agencia Vasca del Agua (Anexo IV); por la Confederación Hidrográfica del Ebro (Anexo V); por la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático (Anexo VI) y por la Dirección General de Aviación Civil (Anexo VII); que se acompañan a la presente certificación."

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 12 de julio de 2017.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA - PLENOA -

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga